



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Bermeoko Udala

**Kultur ekintzak egiteagatik udalak eskaintzen dituen diru laguntzak xedatze-ko oinarrietan, balorazio batzordearen eraketa zuzentzea onartzea.**

2023ko abuztuaren 2ko Osoko Bilkuran, Bermeoko kultur talde eta pertsona fisikoei urteko kultur eta jai ekimenak finantzatzeko dirulaguntzen oinarri zehatzen balorazio batzordearen eraketaren aldaketa onartu da.

Bermeon, 2024ko otsailaren 12an. — Alkatea, Nadia Nemeh Shomaly



## KULTUR EKINTZAK EGITEAGATIK UDALAK ESKAINTZEN DITUEN DIRU LAGUNTZAK XEDATZEKO OINARRIETAN, BALORAZIO BATZORDEAREN ERAKETA ZUZENTZEA ONARTZEA

### Xedea

Bermeoko kultur talde eta pertsona fisikoei urteko kultur eta jai ekimenak finantzatzeko dirulaguntzen oinarri zehatzen balorazio batzordearen osaketaren aldaketa onartzea.

### Aurrekariak

*Lehenengoa:* 2020ko apirilaren 24an, udal Osoko Bilkurak, Dirulaguntzen Plan Estrategikoa eta Dirulaguntzen Berariazko Oinarriak onartzea erabaki zuen. Berariazko Oinarri horien artean, Bermeoko kultur talde eta pertsona fisikoei urteko kultur eta jai ekimenak finantzatzeko dirulaguntzen deialdiaren oinarri zehatzak onartu ziran. Erabaki horren iragarkia 2020ko uztailaren 8ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

*Bigarrena:* 2021eko martxoaren 26an izandako Osoko Bilkuran dirulaguntzen oinarri espezifikoaren aldaketa onartu zen eta 2021eko apirilaren 29ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziran oinarri zehatzen aldaketa.

*Hirugarrena:* 2021 urtean onartutako oinarri zehatzetan akatsak antzeman dira eta hobetzeko arloak be aurreikusi dira.

*Laugarrena:* 2022ko abenduaren 19an, udal Osoko Bilkurak, 2023-2025 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu zuen. Erabaki horren iragarkia 2023ko martxoaren 6ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

*Bosgarrena:* 2023ko martxoaren 31ko Osoko Bilkuran, antzemandako akatsak zuzendu eta hobetzekoak onartu dira.

*Seigarrena:* 2023ko apirilaren 28ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu dira Bermeoko kultur talde eta pertsona fisikoei urteko kultur eta jai ekimenak finantzatzeko dirulaguntzen oinarri zehatzak.

### Argudioak

*Lehenengoa:* Balorazio batzordean akats bat antzeman da eta zuzendu beharra dago.

*Bigarrena:* Oinarri Espezifikoak onartzeko ahalmenari dagokionez, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 9.2, eta 17.2 artikuluen eta Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 22.2.d) artikuluekin bat, Osoko Bilkurari dagokio.

### Erabakia

Udal Osoko Bilkura honek, aho batez, honakoa

ERABAKI DU:

*Lehenengoa:* Bermeoko kultur talde eta pertsona fisikoei urteko kultur eta jai ekimenak finantzatzeko dirulaguntzen deialdiaren oinarri zehatzak aldatzea onartzea:

Onartutakoa era honetan dago:

#### *Balorazio batzordea:*

Dirulaguntzen balorazio batzordea honako hauek osatuko dute: udalean dauden alderdietako kide banak, Kultura teknikariak edo ordezkokoak eta herritar batzordeko idazkariak.

Aldaketa honako hau izan behar da:

#### *Balorazio batzordea:*

Dirulaguntzen balorazio batzordea honako hauek osatuko dute: udalean dauden alderdietako kide banak eta Kultura teknikariak edo ordezkokoak.

*Bigarrena:* Bizkaiko Aldizkari Ofizialean zuzenketa honi publizitatea ematea.

*Hirugarrena:* Kultura eta Hezkuntza Sailari oinarriak Bizkaiko Aldizkari Ofizialera bidaltzeko agindua ematea.



BERMEOKO KULTUR TALDE, ELKARTE ETA PERTSONA FISIKOEI URTEKO  
KULTUR ETA JAI EKIMENAK FINANTZATZEKO DIRULAGUNTZEN  
DEIALDIAREN OINARRI ZEHATZAK

ESPARRUA: KULTURA ETA HEZKUNTZA  
IN-E 180/05-21

Udal saila:	Kultura eta Hezkuntza.
Instruktoea:	Kulturako teknikaria.
Balorazio batzordea:	Dirulaguntzen balorazio batzordea honako hauek osatuko dute: udalean dauden alderdietako kide banak eta Kultura teknikariak edo ordezkariak.
Dirulaguntza ebatziko duen organoa:	Tokiko Gobernu Batzarra.
Ebazpena jakinarazteko epea:	Hiru deialdi egingo dira: 1. Kultur taldeen ohiko funtzionamendurako eta ekintzetarako dirulaguntzen deialdia. 2. Herriko jaietako ekintzetarako dirulaguntzen deialdia. 3. Auzoetako jaiak antolatzeke dirulaguntzen deialdia. Ebazteko eta jakinarazteko 45 egun egongo dira, deialdi bakoitzean eskaerak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.
Dirulaguntzaren leroa:	Herrian edota auzoetan kultur eta jai ekimenak antolatzea.
Kodea:	
Aurrekontuan zehaztutako diru kopurua:	Urteko aurrekontuan jasotako kopuruaren arabera.
Helburuak:	<ul style="list-style-type: none"><li>— Gure herriko kultura, nortasuna eta jaien zabalkundea sustatzea.</li><li>— Euskal folklorea eta kultura zabaltzeko izaera publikoko ekintzen garapena eta presentzia lortzea.</li><li>— Beste komunitate eta udalerrietan, elkarrukeak eta euskal kultur ondarea zabaltzea sustatzea.</li><li>— Udalak antolatutako ekintzetan parte-hartzea lortzea.</li><li>— Sorkuntza eta zabalkunde artistikoa bultzatzea.</li><li>— Herrian eta auzoetan tradiziozko jaiak antolatzea.</li><li>— Herritar eta auzotar guzti bakoitzaren ohiturak ezagutaraztea.</li><li>— Herriko eta herritik kanpo jendea erakartzen duten ekintzak antolatzea.</li></ul>
Epeak:	<ul style="list-style-type: none"><li>— Eskariak aurkezteko epeak, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko diren deialdietan zehaztuko dira.</li><li>— Justifikazioak aurkezteko epeak, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko diren deialdietan zehaztuko dira.</li></ul>



<p>Balorazio irizpideak:</p>	<ul style="list-style-type: none"><li>— Bazkide kopurua (1 eta 2 deialdiak):<ul style="list-style-type: none"><li>• 3tik 9ra: 3 puntu.</li><li>• 10etik 19ra: 6 puntu.</li><li>• 20tik 49ra: 9 puntu.</li><li>• 50etik 99ra: 12 puntu.</li><li>• 100 baino gehiago: 15 puntu.</li></ul></li><li>— Aurreko urtean herriri eskainitako ekimen kopurua (1 eta 2 deialdiak):<ul style="list-style-type: none"><li>• 2: 9 puntu.</li><li>• 3tik 5era: 12 puntu.</li><li>• 6tik gora: 15 puntu.</li></ul></li><li>— Taldearen antzintasuna (1 eta 2 deialdiak):<ul style="list-style-type: none"><li>• 3 urtera arte: 3 puntu.</li><li>• 4 eta 10 urtera arte: 6 puntu.</li><li>• 11 eta 15 urtera arte: 9 puntu.</li><li>• 16 eta 25 urtera arte: 12 puntu.</li><li>• 25 urtetik gora: 15 puntu.</li></ul></li><li>— Taldekideen formazio arloa lantzea edo herritarrei ikastaroak eskaintzea (1 eta 2 deialdiak):<ul style="list-style-type: none"><li>• Formazioa: 5 puntu.</li></ul></li><li>— Ekitaldi berezia, urteurren nabarmena ospatzeko (1 eta 2 deialdiak):<ul style="list-style-type: none"><li>• 5, 15, 20, 30, 40, 60, 70, 80 edo 90: 5 puntu.</li><li>• 10, 25, 50, 75 edo 100: 10 puntu.</li></ul></li><li>— Herrian egindako ekintzarik garrantzitsuenaren hartzaila kopurua (1, 2 eta 3 deialdiak):<ul style="list-style-type: none"><li>• 100era arte: 3 puntu.</li><li>• 101etik 300era arte: 6 puntu.</li><li>• 301etik 500era arte: 9 puntu.</li><li>• 500etik gora: 10 puntu.</li></ul></li><li>— Euskararen erabilera (1, 2 eta 3 deialdiak)<ul style="list-style-type: none"><li>• Ahozko erabilera: 8 puntu.</li><li>• Idatzizko erabilera: 7 puntu.</li><li>• Ahozkoa + idatzizkoa: 15 puntu.</li></ul></li><li>— Beste elkarte batekin edo programa batzuekin elkarlana (1, 2 eta 3 deialdiak):<ul style="list-style-type: none"><li>• Talde batekin edo programa batean jardutea: 5 puntu.</li><li>• Baten baino gehiagotan egitea: 10 puntu.</li></ul></li><li>— Norbere finantzazioa edo beste diru iturriak edukitzea, udaleko dirulaguntzaz gain (1, 2 eta 3 deialdiak):<ul style="list-style-type: none"><li>• Aurrekontuaren %5etik eta %20ra arte: 8 puntu.</li><li>• Aurrekontuaren %20a baino gehiago: 15 puntu.</li></ul></li><li>— Jai batzorde batean (herrikoa edo auzoetakoan) parte hartzea (1, 2 eta 3 deialdiak): 10 puntu.</li><li>— Programatutako egitarauaren garrantzia kontuan hartuko da eta modu berezian baloratuko dira izaera tradizionala, herrikoa eta herrian sustraituta dauden ekitaldiak eta jaiak badira (3. deialdia):<ul style="list-style-type: none"><li>• 2 urtera arte: 5 puntu.</li><li>• 3 urtetik 14 urtera arte: 15 puntu.</li><li>• 15 urte baino gehiago: 30 puntu.</li></ul></li><li>— Programaren interesa eta aniztasuna (1, 2 eta 3 deialdiak):<ul style="list-style-type: none"><li>• Umeentzako ekitaldiak: 5 puntu.</li><li>• Nagusientzako ekitaldiak: 5 puntu.</li><li>• Ume eta nagusientzat: 10 puntu.</li></ul></li></ul>
------------------------------	--



<p>— Diruz lagunduko diren elkarteen eta udalaren arteko ahozko eta idatzizko harremanak, ahal den kasu guztietan, euskaraz bideratuko dira.</p> <p>— Diruz lagunduko diren ekimenen edo ekintzen ondorioz egingo diren idatzi, ohar, kartel eta gainerakoak, gutxienez, euskaraz egingo dira beti euskarari lehentasuna emanaz.</p> <p>— Publizitatea, bai ahozkoa, zein idatzizkoa, gutxienez, euskaraz egingo da beti lehentasuna euskarari emanaz.</p> <p>— Diruz lagundutako kirol eta kultura elkarteek antolatuko dituzten eskola, tailer, entrenamendu, saio eta abarrek euskaraz izango dira, eta arreta berezia jarriko zaie ume eta gazteei zuzendutakoiei. Kasuren batean, monitorean gaitasun ezagatik ezinezkoa balitz euskaraz bideratzea, gutxieneko komunikazioa euskaraz izatea bermatuko da (agurrak, esaldi solteak...).</p> <p>— Diruz lagundutako kirol eta kultura elkarteek euren jarduna bideratzeko monitoriek kontratatu behar badute, kontratatzeak baldintzen artean monitorre jarduna euskaraz normaltasun osoz bideratzeko hizkuntza gaitasuna duten giza baliabideak kontratatzea hobetsiko dute. Euskaraz jarduteko gaitasun nahikoa duten giza baliabideak bilatzeko lan aktiboa egingo da.</p> <p>— Elkarteek euren jardura arruntak bideratzeko (eskolak, tailerrak, entrenamenduak, saioak, ikastaroak...), erabiltzaileei edo herritarrei zuzenduta egingo dituzten ekintza guztietan, posible den heinean, bermatuko da euskararen presentzia bai ahoz, zein idatziz (batzarrek, ate irekiak saioak, ekitaldiak...). Egunerokotasunean erabiltzaileei informazioa helarazteko edo herritarrei zuzenduta erabiltzen dituzten informazio kanaleetan ere euskara erabiliko da posible den kasu guztietan (whatsapp taldeak, posta elektronikokoak, sare sozialak...).</p> <p>— Hitzaldiak, jaialdiak, lehiaketak, kanpainak, eta abar, euskaraz egingo dira posible diren kasu guztietan.</p> <p>— Diruz lagunduko diren ekintzetan, bozgorailu bidez ematen diren mezuak, lehendabizi, euskaraz izango dira.</p> <p>— Hitzaldietan, ahal den guztietan, hizlariak euskaldunak izateko ahalagin berezia egingo da. Hizlari euskaldunik ez balego, aurkezpena eta jorratuko den gaiaren laburpena euskaraz egingo dira.</p> <p>— Hitzaldiez aparteko ekintzetan, aurkezle lanetan ere, euskarari lehentasuna emango zaio. Ekintza amaitu ostean, elkarrizketa sortuko balitz, euskaraz izan dezan ahalbidetzeko itzulpen lanak egitea hobetsiko da posible den kasuetan.</p> <p>— Diruz lagunduko diren ekintzetan euskal musika jarriko da, bai jardura orokorretan (eskolak, entrenamenduak...), zein berezietan (lehiaketetan, jaietan...) edota jaietan, zein merkataritza eta/edo ostalaritza dinamizatzeako ekintzetan, eta euskal kulturarekin, eta euskal identitate eta izaerarekin lotutako ekimenak bideratzeko ahalagina egingo da.</p> <p>— Euskararen kalitatea bermatu behar da aipatutako ahozko eta idatzizko ekintza guztietan. Horretarako, ekintzaren sustatzaileak beharrezko ikusiko balu (ere), ekintzak publikizatzeak jenduarrean jarriko diren euskarriak Euskera Sailera bideratu ahalgo dira honek hizkuntza kalitatea bermatzeko helburuarekin, gainbegiratze eta laguntza lana egin dezan.</p> <p>— Taldeek izan dezaketen zalantzak argitzeako, eta, jendaurreko ekintza idatzietan kalitatea bermatzeko, udaleko Euskera Sailari laguntza eskatzea gomendatzen da.</p> <p>— Gomendatzen da baita ere, Bikain Kalitate Ziertagiria edo Bai Euskarri Ziertagiria lortzeko pausuak ematen hastea diru laguntzaren onuraduna. Oharra: Publizitate edo zabalpen lana egiteko, euskara ez eze, beste hizkuntzaren bat erabili behar denean, euskarari lehentasun osoa emango zaio.</p> <p>* Hizkuntza irizpideak azaltzeko, «elkarte» terminoa erabili da, baina irizpide hauek dirulaguntzen onuradun guztiek bete beharrekoak dira, dirulaguntza hartuko duten pertsona fisiko eta juridiko pribatu guztiek betetzekoak, hain zuzen ere.</p>	<p>— Edozein pertsona juridikok eskatu ahal izango ditu, baldintza hauek betetzen baditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Irabazi asmo bakoak izatea.</li> <li>• Eusko Jaurritzairen Elkartearen Erregistroan sartuta egotea.</li> <li>• Egoitza Bermeon edukitzea eta bere jarduerarik garrantzitsuenak herri honetan edota bertako auzo baten proposatzen badu eta interesgarritzat jotzen garatzea. Egoitza Bermeotik kanpo badauka, baina ekintza bat Bermeon edota bertako auzo baten proposatzen badu eta interesgarritzat jotzen bada, aztertu egingo itzateke.</li> </ul> <p>— Edozein pertsona fisikok eskatu ahal izango ditu, baldintza hauek betetzen baditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Auzo alkatea edo auzoko jai batzordeko zuzendaritza batzordeko kideren bat izatea.</li> <li>• Herrian eragina duen jaietako edota bestelako ekintzaren bat antolatzen duen herritarren bat izatea.</li> </ul> <p>Kasu bietan, Bermeoko Udalak aurretik emandako dirulaguntzen justifikazioak behar diren moduan eta egunean izatea; eta dirulaguntza eskatzen den egunean tokiko zerga zorrak ordainduta izatea. (Bermeoko Udalak ziurtatuko du puntu hau). Identifikazio fiskaleko kodea edukitzea eta egunean egotea betebeharrak fiskaletan eta Gizarte Segurantzian.</p> <p>Kultur talde, elkarte, kale edota auzo bakoitzeko eskaera bat baino gehiago jasotzen bada, udalak bakar bat onartuko du delaiddi bakoitzean. Kasu honen aurrean egongo bagina onarpenaren zeregina balorazio taldeak edukiko luke eta dirulaguntza emango litzaioke ebaluazio irizpideak kontuan izanik puntuaketa handiena lortzen duenari.</p>
---	--



<p>Diruz lagunduko diren kontzeptuak:</p> <p>Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak hurrengoak dira: federazioen kuotak, beharrezkoak diren kudeaketa gastuak, ekintza bakoitza aurrera eramateko behar duten azpiegitura, apaingarriak eta jai girozako beharrezkoak, publikitate, origarriak, sariak (300 euro artekoak), garraioak, formazioa, ballabide materialen hornikuntza, giza ballabideak eta bankuetako komisioak. Sariak, 300 eurotik gorakoak izanez gero, PFGZ aplikatu behariko zaie.</p> <p>Diruz lagundutako programarekin lotura zuzena duten catering eta ordezkariak gastuak ere onartuko dira, gehienez ekitaldiaren kostuaren %25ean.</p> <p>Ez dira finantzatu ondorengo gastuak, egonaldiak, luxuzko gastuak, banku-interesak, administrazio-zigorra.</p>	<p><b>Aurkeztu beharreko dokumentuak:</b></p> <p>Pertsona juridikoen kasuan, dokumentu hauek aurkeztu behar dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>— IFKren fotokopia (aldez aurretik aurkeztu ez bada).</li> <li>— Betebehar fisikaletan eta Gizarte Segurantzaren egunean egotearen egiaztagiriak. (Edo udalari baimena eman ziurtatzeko).</li> <li>— Proiektua, dagokion eranskinean zehaztuta.</li> <li>— Elkarteko estatutuen fotokopiak, eta zuzendaritza batzordeko kideen izendapena eguneratuta, baldin eta lehenago aurkeztu ez badira Kultura eta Hezkuntza Sailean.</li> </ul> <p>Pertsona fisikoaren kasuan, dokumentu hauek aurkeztu behar dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>— NANren fotokopia (aldez aurretik aurkeztu ez bada).</li> <li>— Betebehar fisikaletan eta Gizarte Segurantzaren egunean egotearen egiaztagiriak (edo udalari baimena eman ziurtatzeko).</li> <li>— Proiektua, dagokion eranskinean zehaztuta.</li> <li>— Eskatzaileak talde antolatzailea ordezkatzeko duenaren agiria, kasua bada.</li> </ul> <p>Dirulaguntza eskaria eta justifikazioaren eranskinak aurkeztuko dira, egoitza elektronikoan, datu guztiak ondo bete ondoren. Pertsona fisikoaren kasuan, egoitza elektronikoan eskaria eta justifikazioa aurkeztzeko laguntza eskainiko da Behaz bulegoan edo Kultura eta Hezkuntza Sailean.</p> <p><b>Akatsak zuzentzeko epea:</b></p> <p>Dirulaguntza eskarian ez badira eskatutako agiri guztiak aurkezten, interesdunak 10 egun izango ditu akatsak zuzentzeko, jakinarazpena jasoz denetik kontatzen hasita. Denbora tarte horretan ez badira zuzentzen, eskariari uko egiten zaiola ulertuko da.</p> <p><b>Dirulaguntzak emateko prozedura</b></p> <p>Dirulaguntza emateko prozedura ekimenetarako: Konkurrentzia lehiakorra.</p> <p>a) 1. eta 2. deialdietako eskaria egiten bada:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>— Dirulaguntza prorratat aterako da.</li> <li>— Prorrata denean, eskatzaileek aurkezten duten eskari guztien artean banatuko da aurrekontuko dotazio guztia.</li> <li>— Prorrata sistemaren bidez emango dira, honako taula honen arabera, kontuan izanik gehiengo puntuaketa 130 puntukoa izango da.</li> </ul> <p>1.000 euroa arteko aurrekontua daukaten programak, aurrekontuaren %100ra arteko dirulaguntza lortu ahal izango dute.</p> <p>1.000 eurotik gorako aurrekontua daukaten programak, 1.000 euroko dirulaguntza izango dute fijo, eta honi gehituko zaio zenbateko horretatik gora doan aurrekontuaren zenbatekoari dagokion dirulaguntza. Azpiko taulan agertzen denaren arabera kalkulatu da:</p> <table border="1" data-bbox="1098 548 1268 1541"> <thead> <tr> <th>1.000 eurotik gorako aurrekontua daukaten programak</th> <th>1.000 eurotik gorako zenbatekoan dirulaguntzaren %</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>70 puntu baino gehiago (1. deialdia)</td> <td>Aurrekontuaren %80a arte</td> </tr> <tr> <td>50 puntu baino gehiago (2. deialdia)</td> <td>Aurrekontuaren %100a arte</td> </tr> <tr> <td>30etik 69 puntura bitartean (1. deialdia)</td> <td>Aurrekontuaren %70a arte</td> </tr> <tr> <td>30etik 49 puntura bitartean (2. deialdia)</td> <td>Aurrekontuaren %80a arte</td> </tr> </tbody> </table> <p>— Aurkeztutako proposamenean gutxienez, 30 puntu lortu behariko dituzte dirulaguntza bat jasotzeko.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>— 1. deialdiko eskatzaile batek ezin izango du 9.000 euro baino gehiago jaso.</li> <li>— 2. deialdiko eskaria egiten bada, dirulaguntzaren kopuru handiena 4.500 euro izango da.</li> <li>— Eskatutako dirulaguntza guztien kopurua deialdi bakoitzerako proposaturikoa baino handiagoa denean diruaren banaketa proportzioan egingo da.</li> </ul>	1.000 eurotik gorako aurrekontua daukaten programak	1.000 eurotik gorako zenbatekoan dirulaguntzaren %	70 puntu baino gehiago (1. deialdia)	Aurrekontuaren %80a arte	50 puntu baino gehiago (2. deialdia)	Aurrekontuaren %100a arte	30etik 69 puntura bitartean (1. deialdia)	Aurrekontuaren %70a arte	30etik 49 puntura bitartean (2. deialdia)	Aurrekontuaren %80a arte
1.000 eurotik gorako aurrekontua daukaten programak	1.000 eurotik gorako zenbatekoan dirulaguntzaren %										
70 puntu baino gehiago (1. deialdia)	Aurrekontuaren %80a arte										
50 puntu baino gehiago (2. deialdia)	Aurrekontuaren %100a arte										
30etik 69 puntura bitartean (1. deialdia)	Aurrekontuaren %70a arte										
30etik 49 puntura bitartean (2. deialdia)	Aurrekontuaren %80a arte										
<p>Prozedura eta aurkeztu beharreko dokumentazioa:</p>											



<p>Prozedura eta aurkeztu beharreko dokumentazioa:</p>	<p>b) 3. deialdiko eskaria egiten bada:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>— Konkurrentzi lehiakorra baina konparaziozko baliopekin egin gabe erabiliko da.</li> <li>— Gehiengo puntuaketa 100 puntukoa izango dela kontuan izanik:</li> </ul> <table border="1" data-bbox="288 602 416 1485"> <thead> <tr> <th>Programari emandako puntuak</th> <th>Dirulaguntzaren %</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>86 puntu baino gehiago</td> <td>Aurrekontuaren %100a arte</td> </tr> <tr> <td>71tik 85 puntu bitartean</td> <td>Aurrekontuaren %80a arte</td> </tr> <tr> <td>30etik 70 puntu bitartean</td> <td>Aurrekontuaren %90a arte</td> </tr> </tbody> </table> <ul style="list-style-type: none"> <li>— Eskatzaile batek ezin izango du 4.000 euro baino gehiagorik jaso.</li> <li>— Aurkeztutako proposamenek gutxienez, 30 puntu lortu behariko dituzte dirulaguntza jasotzeko.</li> </ul> <p>Deiadi honetan aurreikusitako dirulaguntzak bateragarriak dira beste erakunde publiko edo pribatuen batek helburu bererako emandako dirulaguntza, diru-sarrera edo baliabideekin eta diruz lagundutako jardueraren bat gainfinantzatuta geratzen ez bada.</p> <p><b>Dirulaguntzak ordaintzea:</b></p> <p>Bermea: ez da eskatuko bermerik ipintzea.</p> <p>Bermeoko Udalak alde zuzena ordaintzeko egingo ditu justifikazioa egin aurretik, jarduerak gauzatu ahal izateko beharrezko finantzaketa gisa. Bermeoko Udalak dirulaguntzak zati bitan ordainduko ditu: %80a dirulaguntzaren zenbatekoa esleitzen denean eta %20a, justifikazioa egin ondoren.</p> <p>Aurkeztutako programa osoa justifikatzen ez bada, justifikazioaren ondoren eman beharreko dirulaguntza berraztertuko da. Dirulaguntza kopuru berriarekin likidatuko da.</p> <p><b>Dirulaguntzaren onuradunen betebeharrak:</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Bermeen, paneletan ezin dira 35 kartel baino gehiago jarri. Horietan ezin izango da kartelik jarri.</li> <li>2. Udolari jakinaraztea beste dirulaguntza batzuk hartzen baditu eta hauen zenbatekoa (denen artean ezin izango dira %100 baino handiagoak izan).</li> </ol> <p><b>Dirulaguntzaren justifikazioa:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>— Dirulaguntzaren justifikazioa egoitza elektronikoan egin behar da. Persona fisikoan kasuan, egoitza elektronikoan justifikazioa aurkezteko laguntza eskainiko da Berhaz bulegoan edo Kultura eta Hezkuntza Sailean.</li> <li>— Ebaluazio-memoria, Udaleko eranskinetako edukaren arabera egingo da: egindako ekintzen garapena, parte-hartzaileak, balorazioa eta balantze ekonomikoa osoa.</li> <li>— Ordaindutako faktura originalak aurkeztuko dira. Egoitza elektronikoan, eskaneatuta aurkeztuko dira. Ez da onartuko beste gastu batzuen justifikaziorik, haiek ez badute balio dirulaguntzaren helburuak lortzeko.</li> <li>— Fakturretan enpresaren izena, IFK edo IFZ, faktura zenbakia, data, kontzeptua, zenbatekoa, BEZa eta eskatzailearen datu fiskalak azaldu behar dira.</li> <li>— Fakturak ordainduta daudela egiaztatatu behar da. Horretarako, faktura bakoitzaren ordainagiria aurkeztu behar da, bankuko transferentzia bidez edo esku dirutan ordaintzen dena, fakturretan «ordainduta» hitzarekin. Tiketak faktura sinplifikatu moduan onartuko dira.</li> <li>— Tiketak onartuko dira, beti ere, datuak zehazturik agertzen badira eta justifikazio osoaren %25a baino ez badira. Autopistako tiketak, garraio publikoko tiketak eta aparkalekuetako tiketak onartuko dira, beti ere, aurkeztutakoak dirulaguntzaren helburuarekin bat datozenean.</li> <li>— Erabilitako publikitateak aurkeztu behar dira, aurretik ez bada aurkeztu. Horietan Bermeoko Udaleko logoa agertu behar da.</li> <li>— Dirulaguntzarekin egin beharreko programa ez egileak edo dirulaguntza ez justifikatzeak aurreko dokumentazioaren arabera, dirulaguntza galtzea suposatuko du eta ordaindutako kopurua iztuli behar da gehienez 30 eguneko epean.</li> </ul> <p><b>Akatsak zuzentzeko epea:</b></p> <p>Justifikazioan ez baditu eskatutako agiri guztiak aurkeztzen, interesdunak 10 egun edukiko dituzte akatsak zuzentzeko, jakinarazpena jasotzen denetik zenbatzen hasita.</p>	Programari emandako puntuak	Dirulaguntzaren %	86 puntu baino gehiago	Aurrekontuaren %100a arte	71tik 85 puntu bitartean	Aurrekontuaren %80a arte	30etik 70 puntu bitartean	Aurrekontuaren %90a arte
Programari emandako puntuak	Dirulaguntzaren %								
86 puntu baino gehiago	Aurrekontuaren %100a arte								
71tik 85 puntu bitartean	Aurrekontuaren %80a arte								
30etik 70 puntu bitartean	Aurrekontuaren %90a arte								
<p>Aurreikusitako kostuak programaren honetan:</p>	<p>Urteko aurrekontuan jasotako kopuruaren arabera.</p>								



Jarraipen eta ebaluaketarako adierazleak:	<ul style="list-style-type: none"><li>— Dirulaguntza hau jasozten duten Bermeoko kultur talde edota elkarteen kopurua gutxienez 8 izatea.</li><li>— Bermeoko Kultur talde edota elkarteen kopurua, elkarlanean jarduten dituztenak udaleko batzarretan edota beste kultur taldeekin, gutxienez 3 izatea.</li><li>— Diruz lagundutako ekimen kopurua gutxienez 10 izatea.</li><li>— 6 ekimenetan parte-hartzaile kopurua gutxienez 300 pertsonakoa izatea.</li></ul>
Lotutako agiriak:	Eskaera egiteko eranskinak: IN-E 269 eta IN-E 270. Justifikazioa egiteko eranskinak: IN-E 271 eta IN-E 272.
Genero eragina:	Bat ere ez.
1/1982 learen arabera argitagarria ez den emakida. Bai/ez	Maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoa, Oporerako, Norberaren eta Familiaren Intimitaterako, eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilar buruzkoa. EZ.